



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

XXI. mendeko superboteareak

**zenburu horrekin irakurri berri dut enegarren memea sare sozialen batean igerian nintzela. Laktosari tolerantzia izatea, glutena jan ahal izatea, Google Maps erabili gabe kokatzea, edozerengatik ez hase-
rretzea, telefonoren bat buruz jakitea eta urtebetetzeak gogoratztea.** Nahiko meme *boomer*-a denik ezin ukatu, gehitzen ahalko genioke beste superbotereren bat, adibidez: sare sozial eta meme barik barre egiten jakitea. Edo hobeagoa oraindik, informazio zurrumbiloen erdian ziurtasunak sinismenetan ez oinarritzea. Pandemia dela-eta bizi dugun egoera nazkagarrian, garia lasotik bereizteko gaitasuna, horratx askok nahiko genukeen superboteare!

Kimikaria naizenez, askok uste dute superboteareak ditudala arlo honetan, eta gomendio eske etorri izan zaizkit txertoen gaineko bideo alarmistaren bat ikusi ondoren, beldurtuta. –Kuriosoa da, baina beldur-
raren bidezko kontrol soziala salatzen duten bideo askok, horixe egiten dute funtsean, beldurra sartu-. Azkena grafenoa dela-eta, bi bideo jaso nituen oso denbora gutxian. Biek hainbat txertotan grafeno egiturak antzeman zituztela aldarrikatzen zuten, baina oso interpretazio ezberdinak egiten zituzten honen gainean. Lehen bideoak grafenoak marraza (cuchilla) baten antzeko egitura duela azaltzen zuten, eta beraz, txertoak barne hemorragiak eragiten dituela grafeno-marrazak kapilarretan mozketak eraginez. Bideo erdia pasatzen du zientzialariak grafenoaren hidratazioaz hitz egiten, horrek marraza egituren zirikurik izango balu bezala, eta puntu horretan bai, nire superbote-
retik ikusten ahal dudala, hidratatuta edo ez, marraza egitura izaten ja-

rraitzen duela grafeno xafla batek. Baina superboteare bat ere bada ohartzea hipotesi hau egia balitz milioika barne hemorragia kasu erreportatuko zirela dagoeneko, ala?

**Bigarren bideoa ez zen hain esperentikoa. Telebistan erabili ohi den kode bisualaz jantzirik zeto-
rren, oso sinesgarri, AEBetako informazio kate batek Espainiako zientzialari bati egindako elkarrizketa serioa dirudi.** Hortzetako eskuilak saltzen dituztenak aspaldi ohartu ziren ingelesez eginez gero zuriagoa dela zientzialariaren bata zuria, eta egiagoa da beraz *espan-
glish* azpititulatua. Hamabi bat minutu luze zen egia dosi hau, grafenoarekin hasi eta munduko ordena berrira arteko bidea egiten, 5Gtik pasatuz. Marraza baten ordez, tran-

sistore baten funtzioa betetzen zuen grafenoak oraingoan. Nire superbote-
retik, ezin dut ezeztatu grafenoarekin transistorerik egin ezin denik, baina ezkerreko militante bezala partekatzen ditugu beste superbote-
re batzuk. Bi nabarmenduko nituzke: agerikoa denez, odolean transistorerik izan gabe bagaudela kontrol sare ekonomiko eta ideologiko batean kateatuta (mugikorren bidez, are gehiago). Eta bigarrena, eta niretzat funtsezkoa dena; kontrol soziala, farmazeutikak, inbertsio funtsak eta abarren bidez ekonomiaren logika esplikatzen den bakoitzean “kapitalismo” hitza behin ere ez erabiltzea... inoiz! Mundu ordena berria ei da XXI. mendeko superboteare... mese-
dez! Gure eskura daude superbote-
reak, ez dugu esnatu beharrik, espabilatzea da falta zaiguna! •



Odolean transistorerik izan gabe, dagoeneko bagaude kontrol sare batean kateatuta.